

Hemendik aurrera Ezkio-Itsasoko liburutegia udaletxean egongo da

Udaletxean, liburutegirako gela handi bat txukundu dute; aldi berean kulturakoek beraien tokia dute bertan.

DV. Hemendik gutxira kultur etxeko eraikuntzaren berrikuntza obrak hasiko dira, eta hau horrela dela, bertako beheko soliruan zegoen liburutegia lekuz aldatu behar izan dute, hemendik aurrera udaletxeko goiko solairuan kokatuta egongo delarik.

Udaletxeko goiko solairua txukundu eta badira aste batzuk liburuak mugitzen hasi zirela. Kaxatan sartu eta gutxien erabiltzen direnak udaletxeko biltegira eraman dituzte; beste guztiak udaletxera.

Horrela, pixkanaka-pixkanaka apaletan kokatu eta gela bat txukundu zuten mahai handi batean gazteek, eta bertara joaten diren guztiek irakurtzeko edo lanak egiteko aukera izan dezaten. Beste gela bat berriz, kulturako bilerak egiteko egokitu dute.

Horrela eta liburutegiko arduraduna den Mirenek egindako lanari esker, leku egokia eta dotorea lortu dute Udaletxeko solairu honetan, eta gaztetxoak ere pozik daude beraien liburutegi berriarekin.

Beraz, hemendik aurrera eta Ezkio-Itsasoko kultur etxean egin behar diren obra guztiak amaitu arte udaletxeko goiko solairuan kokatuko da herriko liburutegia, lehen zuen ordutegi bera mantenduko duelarik. Era berean ere, bertan antolatzen ziren ekintzak egiten jarraituko dira, hauen artean udalekuak daudelarik.